



192. zenbakia

· ABENDUA 2019 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Lurra, Patxi Irurtzun eta M^a Yolanda Mutiloa Oria.

KOORDINATZAILEAK

Itziar Perez eta Garazi Zabaleta

TIRADA

1.600 aleak

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Etxalekuko Ainhoa Carrera Igeltz-en argazkia

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira abenduaren 29an bidalia



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Olerkia



ORBELAGATIK BALITZ

Joemak eta polasak, Iñigo Astiz eta Maite Mutuberria. Elkar 2019



|| Guztiazen gainean hedatzen da orbela
ez du bereizketarik egiten.
Mundu guztiak luke orbel itxura
orbelagatik balitz.

Guztiaren gainean orbela da orbela
ez du bereizketarik orbela.
Mundu guztiak orbela orbel itxura
orbelagatik balitz.

Orbela gainean orbela da orbela
ez du orbela orbela.
Orbela guztiak orbela orbel itxura
orbelagatik balitz.

Orbela orbela orbela orbela
orbela orbela orbela.
Orbela orbela orbela orbela orbela
orbelagatik balitz. ||





Esker aunitz denoi

Zozketa mundiala, zerrien zozketa... Zenbaki hau zure eskuetan duzunerako pasatua izanen da. Eta hortaz, ez nuke horretaz mintzatu nahi. Soil-soilik erran sarituen zerrenda amezti.eus gure aldizkarian izanen duzula kontsultatu ahal izateko.



Baina bai erran, karga handiko zozketa honek jende eta enpresa aunitzen laguntzaren bitartez egiten duela aitaina.

- **ENPRESAK:** esneki ekoizle guziak
- **OSTATUAK:** ostatu guziak beren laguntza ematen digute, denek txartela salmentan eta batzuk bazkariak debalde emanaz.
- **HARAGITEGIA** bat eta **DENDA** bat
- Bi **LANDA ETXE**
- Beste zenbait **PARTIKULAR...**

Zozketa eguneko laguntzaileak: Gartzarongo mutilak, Atezko neskak, Beruetekoren bat... egun horretan irratan esatari lanetan aritzen diren Nora eta Aitor atzendu gabe.

• TXARTEL SALTZAILEAK:

Baina, baina, zer erran txartel saltzaileez? Denen gaintetik, lan zailena egiten dutenak nola utzi aipatu gabe? Zuek zarete zozketa honen oinarria, gure altxorrik handiena...zuek gabe... zuek ezinbertzekoak zarete. Zuek gabe erabat ezinezkoa litzateke Zozketa

mundiala, arean eraikitako gaztelua litzateke, altxatu ezina. Esker aunitz denoi: Oihana, Cristina, Imanol, Itziar, Esther, Loli, Arantxa, Haritz... denak aipatzea ezin.

Zuen laguntza eskertu ezina, aunitzetan eskertxarrekoa... behar beharrezkoa dugu eta izanen dugu. Biba zuek!



▲ Uxue Senosiain eta Tasio Olague, gure saltzailerik gazteenak, olaguearrak.



Zuraren kultura,

Zura oinarritzko baliabidea izan da historikoki gure inguruan. Sua egiteko, eraikuntzan erabiltzeko, erremintak eta lanabesak egiteko erabili izan da eskualdean, eta zurari eta basoari lotutako kultura eta tradizio handia egon da: aizkolariak direla, trontza dela... Atetzen, esaterako, zuraren kultura horretan sakontzeko eta gaurdaino iritsi zaigun tradizioari eusteko lanean dihardute hainbat lagunek duela zenbait urtetik. Herritar horien artean dago Kañamares familia, eta zehazkiago Peio Kañamares aroztegiarra.

“Betidanik izan dut zurarekin harremana. Duela hamabost bat urte berreskuratu genituen gure aitonak oholarekin egindako lanak: arpanak genituen etxean, zerratokia prestatu genuen eta tarteka erakustaldiak egiten ditugu lana nola egiten zen azalduz eta erakutsiz”, adierazi zigun Kañamaresek Esan Erran irratian egindako elkarrizketan.

• LOS CORTADORES DE MADERA DOKUMENTALA

Zuraren inguruan egiten ari ziren lanketa guzti hori dokumentatu eta ikus-entzunezko batean biltzeko proposamena egin zieten Kañamares anaiei 2011n. 45 minutuko dokumental horretan zurarekin egiten diren lanak eta

horietarako erabili izan diren teknika tradizionalak azaltzen dira, Kañamares familiarengandik mantenduak eta gordeak izan direnak. Aizkoren kirtenak egiteko eskulan prozesuari eta orokorrean aizkorari ere eskaintzen diote tarte dokumentalean.

“Zurarekin lotutako lanen berreskurapen horretan genbiltzala, produktore batekin egin genuen topo, eta hortik etorri ziren Aroztegiara dokumentala grabatzera”, azaldu zigun Kañamaresek. Gaur egun Nafarroako Gobernuaren ondare ez-material gisa dago izendatuta dokumentala, erosi egin zuen gobernuak dokumentu hori gorde eta mantentzeko. Azaroan Aroztegiko Izarpe Kanpinean egin

“**Zurgai taldearen helburuetako bat zurarekin lotutako antzinako lanak berreskuratzea izan da**”

zuten filmaren proiektzioa eta solasaldia. “Lehenago Ultzamako Bentan ere proiektatu genuen pelikula, eta oso polita izan zen, zeren bazeuden aitona pare bat bere garaian lan horietan aritu zirenak, eta oso elkarrizketa polita sortu zen haien eta hurbildutakoen artean”, zioen.

• ZURGAI HERRI KIROL TALDEAREN SORTZAILEAK

Herri-kirolen munduan duela hogeita hamar bat urte hasi zen Peio Kañamares, anaia Manolorekin batera. Aizkora eta trontza urte askoan aritu dira biak, eta txapeldunak ere behin baino gehiagotan suertatu dira. Gaur egun bereziki motozerrarekin tailatzen aritzen da Kañamares, eta aizkolari



Omenaldi xumea egin zion Ametzak Beunzari eskualdeko eskulangileen azoka egunean



eta trontzalari gazteen irakasle ere bada.

“1996ean sortu genuen Zurgai Herri Kirol Taldea, hemendik gutxira eginen ditugu 25 urte. Taldea anaiak, Ziordiko Jose Ignacio Floresek eta hirurok sortu genuen, eta hortxe jarraitzen dugu”, azaltzen du Peio Kañamaresek. Taldea abiatu zuten garai hartan herri kirolak oso motelduak zeudela azaltzen du, eta kontua mugitzen hasteko gogoarekin ekin ziotela. Floresek Ziordia eta Sakana inguruan eragin zuen gehiago, eta Kañamarek anaiek, berriz, Aroztegin eta inguru hauetan.

Taldearen beste helburuetako bat izan zen hasieratik antzinako lanak berreskuratzea ere: oholak egitea (zerratokian), aizkora, trontza, beste erreminten zorroztea, eta abar.

Gaur egun taldeko kideek Nafarroako eta Euskal Herriko hainbat txapelketatan parte hartzen jarraitzen dute, eta Peio Kañamarek motozerrarekin egindako tailan espezializatu da. Ez dira asko hemen, Nafarroa inguruan, horretan ari direnak: Azpirozko Mikel Lasarte eta Peio Kañamarek dira motozerrarekin egindako tailan dihardutenak.



Peio Kañamarek motozerrarekin eskultura egiten ▲

Angel Beunza, zura zizelkatzen maisu

Gerendiaingo Angel Beunza zuraren zizelkatze lanetan aditua eta aritua dugu: 35 urte baino gehiago daramatza eskualdeko bizilagun honek zura lantzen eta garai bateko lanabesak eta erremintak sortzen. “Herritarrek beren egunerokoan erabiltzen zituzten piezak eta lanabesak errekupeatzeko eta mantentzeko lanean ari gara, gal ez daitezen”. Segapotoak, kaikuak, gatzontziak, azpilak... Duela ehun urte eskualdean oso ohikoak eta erabiliak ziren objektuak egiten jarraitzen du Beunzak.

Kasik bizitza osoa darama zura lantzen eskulangile ultzamarra. Baina, nondik nora hasi zen zurarekin lanean? “Betidanik gustatu izan zait zura, eta honekin

lanean hasi nintzenean ikusi nuen betetzen ninduen zerbait zela. Edozein lan xumek ere sekulako asebetetzea ematen dit”, azaltzen zigun Ametza Kultur Elkarteak antolatu zuen eskulangileen azokan.

Iraganera gustura begiratzen badu ere, etorkizuna ez du hain argi ikusten Beunzak. Izan ere, geroz eta gutxiago dira zurarekin lanean ari direnak, eta lanbideak eta lan egiteko modu horrek galtzeko benetako arriskua duela uste du. “Hemen ez dago erreleborik, hau desagertzeri doa. Niri ez zait asko geldituko honetan, eta gazte berririk apenas ez da hasi ikasten”. Urte guzti hauetako jarduna eta ofizioa irakasteko bere saiakera hori omendu nahi izan zioten Ametza Kultur elkarteak

“
Omenaldia egin
zion Beunzari
Ametza Kultur
Elkarteak
eskualdeko
eskulangileen
azoka egunean
”

eskulangileen azokan egindako omenaldi xumea.

Zizelkatze lanen galerari aurre egiteko modu bat izan daitezke ikastaroak: gure eskualdean bada horretarako aukera, Alkotzen (Ultzama), Iñaki Villanuevak ematen ditu zizelkatzen ikasteko ikastaroak urtero.



Indarkeria sexistaren aurkako gidak banatu ditu Basaburuko Udalak

Azaroaren 25a, Indarkeria Matxistaren Aurkako Eguna, pasatu berria dugu. Aurten egitaraua abendurarte luzatu da. Baina egitarauaz gain, ekimen gehiago izan dira. Esate baterako, Basaburuko Udalak indarkeria sexistaren aurkako gida batzuk argitaratu eta banatu egin ditu. Indarkeria matxista zer den, zerk eragiten duen, eta erasoen aurrean zer egin azaltzen duen liburuxka da.

Idea Baztango Udaletik aterata da. Esther Lakasta alkateak azaldu digunez, bertan egin zituztenak ikusi eta ekintza lagungarria iruditu zitzaion. Tamaina txikiko liburuxka da, poltsikoan eramateko modukoa. Horrela, hemen ere egitea erabaki zuten udalean. Joseba Otondo Baztango alkatearekin kontaktuan jarri eta Basaburuan ere argitaratu dituzte. Bizilagunen artean banatu dituzte.

Udalak gazteendako zuzendua bereziki egin zuen,

baina edozein adinetako bizilagunendako interesgarria eta aproposa da. "Diskurtsoaren eta errealitatearen artean tarte handia dago. Teoria oso ongi dakigu, baina gero onartezinak diren jarrerak eta ereduak ematen dira. Testuinguru horretan gida aproposa iruditu zaigu. Helburua gazte guztiek matxismoaren berri izatea eta erabili ahal izatea". Neskei bakarrik zuzendua ez, mutilei ere zuzentzen da, alkateak nabarmendu duenez.

Hiztegia

Egitaraua: Programación.

Ekimen: Iniciativa

Argitaratu: Publicar

Eragin: Causar

Onartezina: Inaceptable

Gaztelaniaz, TAMBIÉN eta TAMPOCO; frantsesez AUSSI eta NON PLUS.

Eta euskaraz? Euskaraz ERE, ERE BAI/EZ, BAITA/EZTA... ERE... dauzkagu.

Noiz erabili behar dira hauek guztiak? Non jarri behar dira esaldietan? Bada, zalantza hauek argitzen laguntzeko, hemen dituzu azalpen eta ariketa batzuk.

A) ERE hitzak badu bere lekua: beti joan behar du erreferentzia egiten dion hitzaren atzean:

Mikel zu ikustera joanen da, eta ni ere joanen naiz. (*... eta ni joanen naiz ere)

Gaur ez naiz joanen, eta bihar ere ez naiz joanen. (*...bihar ez naiz joanen ere ez..)

Zein da zuzena?

1. Bihar ez naiz euskaltegira joanen...

2. Nik ongi eginen dut ariketa hau...

a. ... eta lanera ez naiz joanen ere. **a.** ... eta zuk ere ongi eginen duzu.

b. ... eta lanera ez naiz ere joanen. **b.** ... eta zuk ongi eginen duzu ere.

c. ... eta lanera ere ez naiz joanen. **c.** ... eta zuk ongi ere eginen duzu.

(erantzun zuzenak: c eta a)

B) Baina ADITZAKENTZEN BADUGU, beste kontu bat ere aldatu behar dugu: **ERE** ez da nahikoa izanen, eta **ERE BAI / ERE EZ** edo **BAITA ERE / EZTA ERE** erabili beharko ditugu.

Hona hemen adibideak:

ADITZEKIN ADITZIK GABE

Mikel zu ikustera joanen da, eta ni ERE Mikel zu ikustera joanen da, eta ni ERE BAI joanen naiz. (BAITA ni ERE)

Gaur ez naiz joanen, eta bihar ERE ez naiz Gaur ez naiz joanen, eta bihar ERE EZ joanen. (EZTA bihar ERE)

C) Eta EZTA eta BAITA noiz?

Esaldiaren beste osagai guztiak ezabatzen ditugunean, **EZTA** eta **BAITA** erabiliko ditugu. Kasu hauetan **ERE** partikula aukerakoa da:

- Mikel ni ikustera etorriko da, eta zu?

- BAITA (ERE).

- Gaur ez zara etorriko, eta bihar?

- EZTA (ERE).

Martxan da honezkero Plazaolako Biltegia Latasan

Azken hilabeteetan Plazaolako trenbide zaharraren biltegian prestaketa lanetan buru-belarri aritu ondoren, abenduaren 8an ireki zituzten azkenean ateak. Eskualdeko lau emakume daude Latasako Biltegi proiektuaren atzean, Baietz Kooperatiban antolatuta: Kizkitza Larrea eta Idoia Jusue Muskiztarak, Sol Flores aizaroztarra eta Eva Fernandez Egillortarra. Imozko Udalak egin zuen Biltegiaren **kudeaketarako esleipen** deialdia, eta beren proiektua aurkeztu zuen laukoteak. Udalak proposamena onartu eta gero, gunearen prestaketa lanetan aritu dira hainbat hilabetez.

Jatetxea eta taberna **ez ezik**, denda txiki bat eta informazio gunea **ere** izanen ditu Biltegiak, eta baita bizikletak alokatzeko zerbitzua ere. Jatetxea baino zerbait gehiago izatea nahi dute **bultzatzaileek**: "Guk argi genuen ez genuela nahi taberna-jatetxe soil bat izatea, zerbait abersagarriagoa eskaini nahi genuen proiektu honekin", zioten Pulunperako egindako elkarrizketan. Eskualdean bizitzeko eta lan egiteko apustua egin dute Plazaolako Biltegiako kideek, eskualdeari elkargune eta topaleku berri bat eskainiz, gainera. Zorte on, neskak!

Ez ezik...ere:

Egitura honen bitartez, hasieran ematen den informazioa indartu, eta informazio berria ematen da. Indartu nahi dugunaren ondoren **ez ezik** jartzen da, eta berriaren ondoren **ere jarriko dugu**:

- Jatetxea eta taberna **ez ezik**, denda txiki bat eta informazio gunea **ere** izanen ditu Biltegiak.

Hiztegia

Esleipen: Adjudicación

Kudeaketa: Gestión

Bultzatzaile: Impulsora



▲ Baietz Kooperatibako kideak



▲ Jende asko bildu zen Biltegiaren inaugurazioan

N-121-A errepideko lanek 70 milioi euroko kostua dute Nafarroako Gobernuaren arabera

Kilometroko milioi bat euroko kostua aurreikusi du Nafarroako Gobernuakeskualdeazeharkatzen duen N-121-A errepidearen obrak burutzeko. Guztira 70 milioi euro, beraz, 2+1 deituriko konponbidea egiteko. Horregatik, Espainiako Gobernuari diruz laguntzea eskatu dio Nafarroakoak.

Obrek Ezkabako tuneletatik Gipuzkoako mugaraino, Endarlatsaraino, hartuko lukete. "2+1 deitu izan zaio konponbideari, bi erraiei beste bat gehituko baitzaio aurreratzeetarako. Dena den, Obrak noiz burutuko diren ez da argi geratzen oraindik. Momentuz, 2021eko urriraino atzeratu da dokumentazioaren aurkezpenerako epea.

Gobernuak onartu duen bezala egungo errepidean ibiltzea zaila egiten da. Egunero ia 10.000 auto

eta ia 3.000 kamioi pasatzen dira, eta azken hiru urteetan 13 pertsona hil dira auto istripuetan.



▲ N121an istripua

Zorionak
Zorionak



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!

pulunpe@gmail.com



Zorionak Irain !!



Zorionak Auritz !!



Errekek gainezka egin zuten abenduaren erdialdean euriteen ondorioz

Abenduaren 12an eta 13an bota zuen euria medio, erreka ugari gainezka egin zuten Nafarroa osoan. Gurean ere Larraun eta Ultzama ibaien ur emaria ikaragarri handitu zen, eta ibai inguruetan ur putzu handiak sortu ziren.

Eltzaburuko (Ultzama) meteorologia estazioak metro karratuko 69,2 litroko prezipitazioak jaso zituen abenduaren 12an. Larraun ibaiaren emariari dagokionez, abenduaren 12an goizeko 09:00etan segunduko 31,73 metro kubikokoa bazen, biharamunean

goizean ordu berean 243,90 metro kubikoko emaria zuen. Kasik zortzi aldiz handitu zen egun bakarrean ibaiaren emaria, beraz.

Euriteen ondorioz, Larraintzarko ikastetxean klaseak bertan behera utzi behar izan zituzten, nahiz eta zerbitzu minimoak jarri zituzten. Irakasleek Udaletxearen pistatik iritsi behar izan zuten eskolara. Aurtengo neguko lehen eurite handia izan zen abendu erdialdekoa, baina egon litezke gehiago ere hurrengo hilabeteetan. Adi ibiltzea komeni da horrelako egunetan errepideetan eta erreka baztarretan.



▲ Aizarotz



▲ Ihaben ingurua



Aurten ere ez dute hutsik egin Olentzerok eta Mari Domingik

Abenduaren 24a egun berezia da jende askorendako, haurrendako bereziki. Izan ere, urte osoa mendian pasatu ondoren egun hori aukeratzen dute Olentzerok eta Mari Domingik gure herrietara jaitsi eta opariak ekartzeko. Ongi etorria emateko hamaika ekimen antolatu dira gure eskualdean ere: txokolatada, gaztain jatea, musika, antzerkia...

Basaburuan, esaterako, Jauntsarasko polikiroldegian antolatu zuten Olentzeroren ongi etorria. Arratsaldeko 18:00etan iritsi zen eta trikitixa eta panderoekin egin zioten harrera. Opari banaketa egin bitartean gaztain erreak jateko aukera ere izan zuten hurbildutakoek. Ultzaman, Iraitzotzen eta Larraintzarren egin zioten Olentzerori harrera. Bezperan, abenduaren 23an, Lizason urtetxak bildu zituzten etxez-etxe.

Imotzen, Eraso aukeratu zuen Olentzerok. Inguruko herrietako bizilagun asko elkartu ziren bertan jentilari ongi etorria emateko asmoz. Odietan, berriz, urtero herri ezberdinetan antolatzen dute Olentzeroren ongi etorria, eta aurtengoan Erripan egin dute.

Atetzen kasuan, Eritzen egin zioten Olentzero eta Mari Domingiri harrera: azken hilabeteetan entseatzen aritu ziren antzerkia egin zuten hainbat haur eta gaztek arratsaldeko 17:00etan. Ondoren, 17:30ean txokolatada izan zuten, eta jarraian pulunpeak prestatu eta Olentzero eta Mari Domingiren bila joan ziren herritarrak.

Anuen, Olaguera iritsi zen Olentzero joaldunek lagunduta. Lantzen ere ez zuen hutsik egin Olentzerok: opariak ekarri zizkien hango umeei eta harrerara hurbildutako herritarrekin batera egin zuen merendua.



Lizasoko Ana Galarrek bidali digun bineta ▲



Olentzero Atezen ▲



Olentzero eta Maridomingi Erason ▲

Ultzamako Baserri Eskola COP25 klimaren goi gailurrean

Madriren ospatu zuten COP25 klima aldaketaren aurkako goi bilera, abenduaren 2tik 13ra bitartean. Munduko agintariak eta nazioarteko erakundeak ez ezik, herritar ezberdinak ere elkartu ziren goi bileraren bueltan antolatu ziren ekimenetan. Hain zuzen, Lizasoko (Ultzama) Baserri Eskolako gidaria den Beatriz Ochotorenak hitzaldia eman zuen martxan duten Mikaela gaztategi bioklimatikoaren eta orokorrean Ultzama Fundazioak egiten duen lanaren inguruan.

Abenduaren 12an eman zuen hitzaldia Ochotorenak, 'Green New Deal' edo 'Hitzarmen Berde Berria' delakoaren eta parekidetasunaren arteko lotura egiteko konferentzia batean.

Besteak beste, gaztategi bioklimatikoa aurkeztu zuen Madriren: "Ultzaman tenperatura ona mantentzen da gaztak edukitzeko, horregatik lau metroko zuloa egin

genuen gaztak kontserbatzeko. Goian gaztak egiten ditugu eta azpiko zulo horretan, madurazioa".



▲ Beatriz Ochotorena konferentziako hitzartzean



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAOK ATEA · PUERTA DE ULZAMA

ESKATU ERAMATEKO JANARIA

Oilasko erreka patatekin 13,90€

Paella errazioak 9,5 €

Pizzak, Hanburgesak...



eta.... Ostegunero
8ak aldera Pintxo Pote



Eguneko Menua
Asteburuko Menu berezia
Pizzak, Hanburgesak
Plater konbinatuak
Paellak....
eta askoz gehiago



Iñaki Larraiozek musika jarri dion laburmetraia, Nafarroako Txapelketan bigarren

Ibai Altunaren 'La cirila' film laburrari soinu banda jarri dio Iñaki Larraioz musikari ultzamarrak, eta Nafarroako VII. Laburmetrai Txapelketan bigarren postuan gelditu dira. Gisa honetako proiektu batean parte hartzen zuen lehen aldia zuen Larraiozek, eta Esan Erranen azaldu zigunez, musika sortzeko denbora tarte oso laburra izan bazuen ere, oso gustura aritu zen.

"Lagun baten bitartez jaso nuen proposamena. Lagun baten laguna da kortoaren zuzendaria", zioen irratiko elkarrizketan. Txapelketa bi fasetan egiten da: lehenengoan gidoiak soilik bidaltzen dira, eta bigarrenera pasatzen direnek laburmetraiak aurkeztu beharra dituzte. "Oso epe motza dute finalera pasatzen direnek grabaketa eta postprodukzioa egiteko, horregatik izan nuen nik ere musika jartzeko epe oso laburra", gehitu zuen. Sekula horrelako lanik egin gabea zen Larraioz, baina betidanik

pentsatzen omen zuen gustura eginen lukeela horrelako zerbait. Horregatik, ezin zuen pasatzen utzi.

"Gidoiarekin hasi ginen hasieran lanean, eta zuzendariak burutan zituen zenbait ideia azaldu

zizkidan. Gero, behin grabaketak egin ondoren, material hori pasatu zidaten eta bururatu zitzaizkidan gauzeekin proposamena egin nion zuzendariari". Horrela izan zen sortze prozesua, musikariak azaldu zigunez.



Iñaki Larraioz ▲

De Rerum Natura

@zaldierox





Bukatu da aurtengo Pilota Goxua Txapelketa

Urri bukaeran hasi zen 2019ko Pilota Goxua txapelketa gure eskualdean.

Basaburuko eta Imozko Kirol Batzodeek antolatzen dute kirol ekimen hau, eta Gartzarongo Toki Alai Elkartearen laguntza ere jasotzen dute. Kasik bi hilabete iraun ditu txapelketak, eta leku ezberdinetan jokatu dituzte partidak, besteak

beste, Gartzarongo eta Latasako pilotalekuetan.

Aurtengo pena izan da nesken kategorian bikotek batek ere izenik eman ez izana. Abenduaren 27an arratsaldeko 18:00etatik aurrera jokatu zituzten finalak. Hiru partida izan ziren guztira: lehen, bigarren eta hirugarren mailakoak. Hauek izan ziren partiden emaitzak:

PILOTA GOXUA FINALAK 2019 EMAITZAK.

HIRUGARREN MAILA

Gorka/Adur	22
Mikel/Ugaitz	18

BIGARREN MAILA

Lizoain/Okinena	22
Sagardia/Oskoz	19

LEHEN MAILA

Eneko/Karrion	22
Olibeira/Esnaola	19



Pilota Goxua partida ▲

Zorionak irabazleei, eta baita antolatzaileei ere! Behin Pilota Goxua Txapelketa amaituta, pala txapelketa antolatzeari ekinen diote hurrengo hilabeteetan. Adi, beraz, palazale guztiak!



Zurezko Tallak

—ESKUZ EGINDAKOAK—

Tailuzko eskulan desberdinak / *Todo tipo de trabajos en talla*

Etxeen izenak / *Nombres de Casa*

Eguzkiloreak / *Cardos de Brujas*

Ongietorriak / *Bienvenidas*

Esekilekuak / *Percheros*

Armarriak / *Escudos*

Ikastaroak / *Cursos*

—MIKEL OKIÑENA [ETXALEKU]—

618 3520 14 [WHATSAPP] - geroarte@gmail.com

Baditun bi

Hemen baditun 14 erakusketa ikusgai da Iruñean. Kondestable jauregian izan zen lehenengo, eta urtarrilean emakumeen etxean jarriko dute. Bertan, euskararen alde lan egin duten 14 emakumeren ibilbidea ezagutu daiteke, eta haien artean, eskualdeko 4 emakumerena: Sagrario Aleman euskaltzainarena, Luzia Goñi bertsozalearena, Xole Erbiti euskara teknikariarena, eta Ceferina Fontellas 'Abarzuza' liburudendaren arduraduna izan zenarena. Erreportaje honetan azken biak ezagutu nahi izan ditugu.

Egitasmoa Ines Castiella Imaz irakaslearena izan zen, Iruñeko Udalarekin elkarlanean: "Duela pare bat urte hasi ginen honekin. Haiekin harremanetan jarri nintzen eta euskararen alde lan egindako emakume batzuei ikusgarritasuna ematea ideia polita iruditu zitzaien". Zerrenda bat osatzen jarri ziren eta, oraingo honetan, 14ri egin diote omenaldia. Hau hasiera besterik ez da, ordea. Gehiago biltzeko eta omentzeko asmoa dute. "Badira lan garrantzitsua egin duten emakumeak, baina askotan ez dira inon agertzen", azaltzen du Castiellak.

Erakusketa osatzen duten emakumeek arlo askotan lan egin dute: "badakigu, adibidez, andereño asko izan direla, baina arlo gehiagotan lan egin duten emakumeak bildu nahi izan ditugu". Horren adibide erakusketan ikusten ahal ditugun gure eskualdeko lau

emakumeak: Luzia Goñi bertsolaria, Ceferina Fontellas liburugintzan lan egindakoa, Xole Erbitik erakundeetan euskara sartu zuen eta D ereduko ikastetxeak bultzatu zituen eta Sagrario Aleman euskaltzainak Arturo Campion euskaltegia martxan jarri zuen, beste lan askoren artean.

Xole Erbiti Arbilla, Ilarregi

Ilarregiko Urrikenia baserrian hazi zen Xole, Ultzaman. Nafarroako Diputazioan lanean hasi, eta irakasle aritu zen, Xole Erbiti, Nafarroako eremu euskalduneko Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, eskolaz kanpoko ordutegian. Eskola horien artean, Berueten aritu zen, oso pozik. 1972an oposizio publikoa gainditu eta, Nafarroako lehen euskara teknikaria bilakatu zen 1973an, Hezkuntza Zerbitzuan sortu berria zen Euskara Atalean. Urte horretako udan zuzendu

“**Badira lan garrantzitsua egin duten emakumeak, baina askotan ez dira inon agertzen**”

zuen euskarazko irakasleendako ikastaroa, lehenbizikoz egiten zena; eta Jose Miguel de Barandiaran, Manuel Lekuona, eta Marzelino Garde ikasle izan zituen.

Urrikenia baserrian bizi dira oraindik Karmentuku, beste ahizpa, alaba Belaterekin batera, abeltzain lanekin jarraitu baitute. "Hiru ahizpa ginenez, eta mutikorik ez, niri egokitu zitzaidan. Aitak eta amak erraten zutena egin behar zen orduan. Xole beti etortzen zen bisitan, eta penaz,



Karmentuku Erbiti, Xoleren ahizpa, hiru urte gazteagoa zen eta beti elkarrekin ibiltzen ziren.



Olaia Erbiti, Xoleren ahizpa txikiena. Xole hil zenean, oroitzapenak liburu batean bildu zituzten eta bertan Xole agertzen da gaztetan, maite zuen elurrean.



nola ez nuen nik ere estudiatu... niri ere pixko bat pena eman zidan ez estudiatu izanak. Baina horrela ziren gauzak lehen". Egun, bere alaba Belatek hartu du baserriko lana: "Niri ere pena ematen dit, lanak handiak eta indarrezkoak baitira hemen, baino gustatzen zaio. Hori ez da ni bezalakoa, berak estudiatu zuen eta gero etorri da honera eta berak gustukoa du".

Ahizparen lanaren artean zer nabarmenduko zuen galdetu diogu Olaia Erbitiri: "Irakasleei ikastaroetan eman zien prestakuntza. Baita herriz herri ireki zituen ikastolak ere. Urte txar haietan, gainera. Xole hasi zenean ez pentsa broma zenik! Zangoza eta herri askotan ireki zituen ikastolak eta haserrealdiak izan zituen herriko alkateekin eta jende askorekin. Herri batera joan, kilometroak eta kilometroak egin, hotzarekin, beroarekin, elurrarekin, batzarretara joan... hor aurpegia ematen duzu eta hori ez da erraza". Karmentxu Erbitik ere, erdiko ahizpak, lanean gogoratzen du Xole: "Ez zuen denbora galdu, ez, beti bere liburuekin eta bere euskararekin!"

Xole hemen egongo balitz denak eskertuko zituen: aipatzen digu Olaiak. Karmentxuk ere, pozik omenaldirekin: "Hil zen moduan ... nik pixko bat faltan bota nuen horrelako zerbait egitea. Oso ederra egin zuten". 2009an hil zen Xole esklerosi baten ondorioz.

Olaia Erbitik gaineratzen du: "Dena den, hemen 14 emakume omendu dituzte, baina ehunka eta ehunka irakasle eta guraso ausartak omendu beharko genituzke, euskarazko hezkuntza bultzatu eta aukeratzeagatik, jakin gabe, gainera, bide honek nora eramaten zituen".

Ceferina Fontellas, Beuntza

Atezko bailaran hazi zen Ceferina Fontellas, Iruñetik oso umetan Beuntzara etorri ondoren. Gerora Andres Abarzuza alargunaren etxean zerbitzari ari zela, Victor etxeko semearekin ezkondu zen. Kale Nagusian kokatu, eta bost seme-alaba izan zituzten. Oso gazte alargunduta, 1967an, askotariko lanak egin zituen familia aurrera ateratzeko. Horietako bat, Abarzuza liburu-dendaren ardura hartzea izan zen. Euskara hedatu nahian, euskal liburuak saltzen zituen, debekuak eta mehatxuak gorabehera.

"Nik gogoratzen dut nola hasi zen euskal liburuekin, naturaltasun osoz, bera euskalduna baitzen, bere jatorrizko hizkuntza zen. Aitari, nahiz eta euskalduna ez izan, oso ongi iruditu zitzaion eta aurrera egin zuten. 1960. urtean harrezkero hasia zen euskal liburuekin eta erakusleihoan ipintzen zituen. Jendeak galdetzen zion: 'baina ausartzen zara?', eta amak erantzuten zuen 'Ez naiz ausartuko bal'. Bi alditan kristalak hautsi zizkiguten. Haietako batean gurutze gamatua margotu ziguten. Nik, harrezkero, 18 urte izanen nituen. Kotxean ere margotu ziguten gurutze gamatu horiek. Baina ez gintuen beldurtu. Kristala

konpondu eta aurrera! Guk gurera! Noizbait norbaitek ere sartu eta zerbait esan digu, baina gutxitan. Ama oso pertsona hurbila zen jende guztiarekin." Kontatu digu bere alaba Marcela Abarzuza Fontellasek, liburu-dendaren egungo arduraduna.

Bost anai-arreben artean zaharrena da Marcela: "Denak pasatu gara dendatik. Hortzak ateratzerako dendan barrena genbiltzan. 9 urte lan egin nuen beste denda batean, baina 26 urterekin gure kontu Abarzuza ireki genuen hemen, Santo Domingo kalean. 40. hamarkadan Kale Berrian hasi zenaren lekukoa".

Omenaldiaz, Marcelak ere xume erantzuten digu: "Hasiera batean sorpresa izan zen. Ama oraindik gure artean egongo balitz ezetz esango zion omenaldia jasotzeari, seguro! (barreak). Txunditu egiten baitzieten horrelako gauzek. Ilusioa egin zigun, oso hunkigarria eta oso polita izan da. Hala ere, pentsatzen dugu, badirela hainbeste emakume bidean gelditu direnak, garai haietako hainbeste emakume, bizitza gogorrak izan dituztenak eta hainbeste gauza pasatu behar izan dituztenak...! Denek merezi dute omenaldia, omenaldi bat bakarrik ez, pilo bat! eta monumentu bat ere bai!".



▲ *Marcela Abarzuza Fontellas, Ceferinaren alaba, liburu-dendaren arduraduna da egun. Santo Domingo Kalean dute orain.*







'Joemak eta polasak' liburua



elkarrikketa entzuteko


“Jolasteko gogo dago liburu honen muinean, hitzekin ganberroena pixka bat egitekoa”

'Joemak eta polasak' izeneko liburua atera berri dute Iñigo Astiz eta Maite Mutuberria ultzamarrek. Poemak Astizek idatzi ditu, eta Mutuberriak, berriz, irudiak jarri dizkio liburuari. Jolaserako gonbidapena da lan berria.

DURANGON AURKEZTU ZENUTEN 'JOEMAK ETA POLASAK'. ZER MODUZ JOAN ZEN?

M: Aurkezpenean egin genuen eta gero liburuak sinatzen aritu ginen, eta egia esan nahiko pozik gelditu ginen. Aurkezpenean Iñigok show moduko bat egin eta han zeuden ikasle guztiak poltsikoan sartu zituen, eta gero sinatzera jende dezente hurbildu zitzaigun. Ikusten da jendeak baduela jolasteko gogo, erantzuten diola izenburuari eta jarraitzen duela jokoa.

JOLASA DA LIBURU HONEN EZAUGARRI NABARMENENA, BERAZ?



I: Bai, titulutik hori argi gelditzea zen ideia. Gogoratzen dut Elkarrekoek galdetu zigutela ea izenburuaren ondoan jarriko ote genuen jolasteko liburu zela, eta esan nien: “Jo, izenburu horrekin norbaitek jolasten ari garela ulertzen ez badu, agian ez da beretzako liburu...”. Poemak eta irudiak dira, baina guztiaren muinean jolasteko gogo dago, ganberroena pixka bat egitekoa eta hiztegiaren alderik dibertigarrienera sartzekoa.

SORTZE PROZESUAN ONGI DIBERTITU ZARETELA NABARI DU...

M: Bai, Iñigok niri poemak bidali zizkidanean barre asko egin nuen, segituan ulertu nuen jolasteko zerbait zela eta ni ere saiatsu nintzen ilustrazioak puntu horretatik egiten eta ongi pasatzen.

I: Bai, eta gehiago jolasteko gogoekin bukatu dugu. Durango existituko ez balitz, agian 500 orriko liburu izango genuke! (barreak). Ez, baina benetan, sentsazio oso ona da liburu bat gehiagorako gogoz bukatzea.

NORENTZAT IDATZI ETA MARRAZTU DUZUE LIBURUA?

I: Jolasteko gogotik sortutako liburu da, eta jolasteko gogo duen edonorentzat dago idatzita.

Jolasteko gogo horrek markatzen du benetan zein den gure irakurlea. Haur eta gazteendako bilduma batean atera da, baina haur eta gazte horien gurasoak, lehengusuak edota osaba-izebak ere ikusten ditut liburu irakurtzen, eta jaso dugun erantzuna da jende hori gustura dabilela irakurtzen.

M: Ni azken aldian saiatzen ari naiz batez ere niretako marrazten, zeren azkenean nik ez dakit besteek nola irakurriko duten. Horregatik, nire burua hartzen dut erreferentziatzat: egiten dudanarekin ongi pasatzen ari banaiz, besteendako ere balio dezake.



Maite Mutuberria eta Iñigo Astiz liburuaren aurkezpenean



elkarrizketa
entzuteko

“Nahiz eta taldea beharrezkoa zaigun, izaki sozialak garen heinean, gure barnera begiratzea garrantzitsua da”

Xaxardi ipuin liburua argitaratu berri du Joana Ziganda oskoztarrak Iker Uribe lakuntzarrarekin batera. Durangoko Azokan aurkeztu zuten lehenengo aldiz, eta Imotzen urtarilaren 3an egingen dute aurkezpena.

• **XAXARDI DURANGON AURKEZTU ZENUTEN, ZER MODUZ JOAN ZEN?**

Bai, lehenengo aldiz Durangoko Azokan aurkeztu genuen. Azaroaren bukaeran jaso genuen liburua, eta lehendabiziko aurkezpena bertan egin genuen. Oso polita izan zen, oso gustura izan ginen. Ostegun arratsaldean aurkeztu genuen, eta egia da ez dela egunik egokiena, lehenengo eguna izanda ez baita jende asko ibiltzen, eta egun horretan nahiko poliki iristen da jendea. Baina, hala ere, oso gustura izan ginen. Haurrak zeuden, “Saguganbara”n beti, eta berezia izan zen. Duzun azpiegitura izugarritzakoa da: fokoak, mikroak ... oso polita. Modu berezian kontatzen dugu ipuina, eta haurrak oso pozik.

• **AIPATU DUZU, EGITEN DUZUEN AURKEZPENA, GAINERA, BEREZIA DELA, TWITTERREN IRUDIREN BAT IKUSI DUGU...**

Bai, liburu erraldoi bat sortu dugu, eta horrekin egiten ditugu aurkezpenak. Narrazioak ere baditu berezitasun batzuk, bertsoak eta kontakizuna nahasten direlako; beraz, ipuin kantatua izan zen. Hala egin dugu Irurtzunen ere, eta Imotzen hitzartua dugun aurkezpenean ere horrela izanen da.

• **ETA ESAGUZU, NOR DA XAXARDI?**

Oso pertsonaia berezia eta karismatikoa da. Sasi-ardi arrazako ardi bat da, eta ez dabil beti artaldean. Ez du beti egiten gainontzekoek egiten dutena, ezta Mailos artzainak nahi duena ere. Ideiak oso argi dituen pertsonaia da.

• **ZEIN DA LIBURUAREN MEZUA? ZERGATIK SASI-ARDI BAT?**

Ez naiz ardi kontuetan aditua (barreak), baina ezagutzen nituen sasi-ardiak eta bere ezaugarriak, eta kasu honetan lehenengo mezua etorri zitzaidan burura, transmititu nahi nuen. Haur Hezkuntzako irakaslea naiz, eta batzuetan gelan



Joana Ziganda eta Iker Uribe
Xaxardi liburuarekin

gertatzen diren gauzetatik abiatzen naiz. Txikitan, batzuetan, taldeak eramaten gaituela ikusi dut. Beno, txikitan, nerabezaroan, helduak garenean eta zahartzaroan ere bai! Orduan, mezua da: nahiz eta taldea beharrezkoa zaigun, izaki sozialak garen heinean, gure barnera begiratzea ere garrantzitsua da. Bakoitzaren ideiak, desioak, eta gure buruarekiko irizpide kritiko bat izatearen garrantzia bultzatu nahi nuen. Horregatik da Xaxardi, sasi-ardiak horrelakoak direlako: pixka bat errebeldeak, ez dute beti artaldeak nahi duena egiten. Hori da mezu nagusia, baina beste batzuk ere badaude, pertsonaia guztiak nahita aukeratuak daude bakoitza bere mezuekin. Eta gero norberak interpretatzen duena, noski.

• **BION ARTEKO SORTZE PROZESUA NOLAKOA IZATEN DA? TESTUA ETORTZEN DA LEHENENGO, EDO IRUDIAK?**

Liburu honetan, aurrekoarekin alderatuta, era ezberdinean egin dugu: nik testua sortu dut, eta gero berak irudiak jarri dizkio. Baina egia da behin dena egin dugula elkarrekin uztartzen ditugula gauza asko, egokitzeke. Adibidez, irudiak asko esaten duenean, testua kentzen dugu, beharrezkoa ez denean...



Itsasoko Goikoxukaldeko etxea

Maria Micaela Zia Goñi

Maria Micaela Zia Goñi, **Goikoxukaldean** bizi da, bertako alaba, emakume lasaia, goxoa eta edukazio handikoa. Etxean ongi hezia izan zela nabari zaio. Eskola guziak baino inportanteago baita etxean ikasten dena.

Itsasoko berriei jakiteko ere nor pertsona egokiagorik Maritxu Zia baino? Baina, gaurkoan ez dugu Itsasokoherriaz askorik hitzeginen, **Goikoxukaldeko** familiaz baizik.

HAURTZAROA

• NOIZ JAI ZIÑEN?

Mille beatzieun ta hoeitamikako abuztun hoeitabatiin.

• ZURE GURASOAK, NOR ZEEN?

Maria ta Migel, biek hemengoak. Atte itxe hontakoa eta ama **Jualapitzenekoa**. Ama nik bi illate nitulla hil zen eta nere amatxik-eta **hezi** zireten.

• ORDUN, ZUN ATTE BERRIZ EZKONDU ZEN.

Bai, bai, Maria Zubillagarekin. Arruizko **Argiñenekoa** zen. E'tzuten umeik izan eta mutiko bat ekarri zuten, Lorentzo Soraluze, zazpi edo zortzi urtekoa.

• ZE ADIÑ ZIÑUN AMAORDEKOA EKARRI ZUNIAN ZUN ATTEK?

Nik zazpi urte edo. Lenbixin arraro samar iñen zen baño, bueno. Gero normal. Bittartiin izoakin bizittu nitzen ta gero amaordiakin.

ESKOLAKO KONTUZ

• ZENBAT MAISTRAS AKORDATZEN ZAA?

Ni bi maistras akordatzen naiz. Bat Pilar zen eta bestii Antonia Larraiotz, Eltzaburukoa. Honekin

ibilli nitzen geiena.

• ZE OROITZAPEN, RECUERDO, DUZU ESKOLAKOAZ.

Ongi, ordun kuadrille juntatzen giñen, ta ongi.

• MAISTRAS JOTZEN AL ZUN?

Ni e'naiz akordatzen jos baño kastigatu-eta, bai. Oso zintzoa giñun, oso relijiosa, ordu baktzetan errezatzen giñun. **Bentita sea la hora en que la Virgen Santísima vino en carne mortal a Zaragoza**, esaten giñun. Besteik ez.

• BESTEIK BA AL DUZU GOGOAN?

Bai, mutikoak eta neskatoak errekreoan'e denak batiin ibiltzen giñen, oso ongi; eta maistra hau zorrotza izaki eta, beix ibilli bear giñula. Gue artekoa biurritu besteik ez zun in.

(Aipatu beharrekoa dela uste dut, maistrak, errekreoan, ez zuela

euskaraz mintzatzea debekatzen. Eta ez da gutxi!)

SAKRISTAUEN ETXEA

• AITTU IZAN DUT ZUK SAKRISTAUEN IZAN ZATELA.

Hala da, gue aitatxi sakristaue izan zen eta gue atte'rebai. Eta ni'rebai. Goain itxez itxe itten da.

• IA, MARITXU, ZUN ATTEK ZE LAN IZATEN ZUN SAKRISTAUKOAN?

Goiziin argiezkille, gio guk jotzen giñun ordueta (Anjelus) ta gio attek illunezkille. Eta iandetan, meza ta bezperak.

• ETA SUEZKILLE. DIFERENTIA ZEN SUEZKILLE? ALLATU ZIÑEN SUEZKILLE AITZIA?

Bi ezkillekin, fuerte jo. Suezkillek jo zittuten, Biamendin, hor, Goñin itxe erre zeniin. **(Argindegia)**



Maritxu, iloba duen Irunerekin, pozik. ▲



ekoandrea

- ZE JORNAL IZATEN ZUTEN ZUEN ITXEKOAK SAKRISTAU LANA ITTIATIK?

Ameztin bazeen bi soro, bat koskorra, baño bestii oso ttikie. Guk ibiltzen giñozen ezkillak jotziazatik. Hori giñun jornala.

NEKAZALGOA

Maritxuren gazte denboran nekazalgora izaten zen, laboreak gehienbat. Azienda gutxi, larre behiak eta txerriren bat. Eta gero artaldeak.

Azienda larria

Ni ttikii nitzeniin izaten giñozen bost edo sei bei. Atiatzen giñun esenii. Atiatzen giñozen 5-6 litro. Letxeroa, Jose Vitoria eta gero ultzamarren bat'e bai, Periko.

- GIO COPELECHE SORTU ZEN.

Bai, gu're sartu giñen. Geroago Danonen ibili giñen.

Artaldeak. Azienda xehea

- ATTEZ GAIN ITXAN BAZIÑUTEN BESTE GIZON BAT, OSABA. ZERTAN AI'TZEN ZEN?

Jacinto? Itxeko lanetan, ta ardiik'e bagiñuzen ta artzai ibiltzen zen. Gio beiekin... lan guzitan.

- NOLAKOA ZEN JAZINTO?

Ona ta langillii. Beti ongi konpodu izan giñen osabakin, bai. Ez zen oso azkarra, janiin ta beti kuidatu biarra izaten zun.

- TA BORDA, ESTALPIA EDO ARTEGIE NON ZIÑUTEN? NOLAKO ARTALDIA?

Estalpe bat. Hor **Aamenin** azpikaldi'hortan. Berreun izatii allatu giñen, beti ez, baño bai.

- NON LARRATZEN ZIÑUZTEN?

Hor, oianiin, ibiltzen zeen asko. Hor, **Urgorri** aldiin ta **Mendigañiin**, ordun dena oiana zen, goain landue dau baño.

FAMILIA HANDIA

- GIZONGAIE HURBIL HARPATU ZIÑUN. TTIKI-TTIKATIT IZAUTUKO ZIÑUN.

Bai, labengoa. Ttiki-ttikitatik ez. Joaten giñen Juantsatsa (sic) eta hor izautzen giñen. Denak Txokolateron itxa; paseoik haundina!

- NOIZETANONEZKONDUZIÑENJUAN PEDRO MARIÑELARENAREKIN?

Noiz? Bai, el 28 de octubre. Eta ezkondu giñen Iruñiin, Cristo Rey parrokiin.

- ETA EZKON BIAJIA NOA IN ZIÑUTEN?

Izandu giñen Zaragozan, ta gio ibili giñen alderdi hontan, Erriberan. Haundina Zaragozan.

- LEHENBIZIKO SANFERMINAK

Ezkontza dela eta pesta kontuak atera zaizkigu hizpidera.

Honela esan digu Maritxuk, hitzez hitz.

Leenbixiko Sanfermiñetan ni izan nitzeniin, ezkondu hurbillengo urtiin, edo urte hartan beriin; izandu nitzen motoan senarrakin. Belarriin ai giñen eta hala! Sanfermiñeta!



Maritxu Zia Goñi ▲

(Alabak eta ilobak irri algaraka hasi dira Maritxuren kontu hau entzutean. Ez gara denak berdin bizi izan, ez horixe!)

Bere familiako historiara itzuli eta segitu dugu:

- ETA LASTER ETORRI ZEN LENBIXKO UMIA?

Bai, bai, hurbillengo urtiin jaio zen Marisa. Gero Mari Jose eta gero, mutikoa, Juan Jose.

- GARAI HARTAN NOR ZIÑETEN ITXAN?

Migel, atte, Maria, ama, eta Jacinto osaba. Ni eta Juan Pedro ta hiru ume. Zortzi denetara.

(Ordurako Soraluze ezkondu eta alde egina zen etxetik)

1988-1993KO GARAI LATZA.

- EZBEARRAK SEGIDA HANDIN'E IZANDU ZIÑUZTEN.

Bai, bai, lendixko hil zen, ama, gero senarra eta gero osaba, eta azkenik atte! Sei urti bidliin, lau. Bi neskato zarrenak itxetik kanpo zeen, ezkondu, eta ni semiikin bakarrik geldittu nitzen. Juan Pedro senarra, 1991ko maiatzan 19n hil'tzen.

Aurrera ere segitu dugu hizketan, gauza arinagoez, alaiagoez, baina hemen utzi beharko dugu gaurkoz, luzexko egin baitzaigu Pulunpen dena sartzeko. Pulunperako ez bada ere, hurrengo batean bisitatu beharko dugu Maritxu, luze gabe.

Maritxu, segi aurrera betiko umorearekin.

Txurdan

1.-Ameztieus-en sartu dugu elkarriketa osoa. Eta baita Maritxuk kantatu digun salbea ere, norbaitek ikasi nahi balu ere. Eta baita Urteberritan Itsason etxez etxe kantatzen dituzten koplek lehenbizikoa ere.



Letxefritak

Ohiko postre dira gurean Letxefritak. Etxalekuko Ostatuko Maritxu Erbitik esan digunez, arrakasta handia izaten dute beraien jatetxean ere. Zaila izanen da Maritxurenak bezain goxoak ateratzea, baina benetan, dirudiena baino errazagoa da prestatzen! Animatuko zara?

OSAGIAK
(25 BAT ERRAZIOTARAKO):

200 gr. azukre

100 gr. maizena

Bost bat arrautza

Litro bat esne

Banilla aroma likidoan

Kanela hautsa

• PAUSOAK:

1) Esnea kazola batean berotzen jarri banila txorrotada batekin (banila esentzia likidoa). Banila beharrean norbere gustuko beste zerbaitekin izan daiteke: kanela, adibidez.

2) Ontzi batean azukrea eta maizena nahasi.

3) Beste ontzi batean lau arrautza irabiatu, eta lehenago nahasi ditugun azukre eta maizena gehituko diegu arrautzei. Poliki-poliki, dena ongi-ongi nahasiz eta pinportarik utzi gabe.

4) Kazolan jarri dugun esnea bero-bero dagoenean kanpora atera eta arrautza, irina eta maizenarekin nahastuko dugu ontzian. Jarraian, nahasketa guztia kazolara bueltatu eta berriz berotzen jarriko dugu, su eztian. Etengabe nahasten aritu behar da, bueltak emanez, bexamela bezala. Loditzen joanen da pixkanaka.

5) Tarte baten ondoren, nahasketa nahikoa loditu denean, sutatik atera eta bandeja batera aterako dugu. Ordu batzuk hozten utziko dugu bandeja, hozkailuan.

6) Behin hoztuta dagoenean, laukitxoetan moztuko dugu bandeja osoa.

7) Letxefritak bandejatik atera, plater batean irabiatutako arrautzatik pasa eta girasol olio berotan frijituko ditugu. Buelta eta buelta, azkar batean egiten dira.

8) Olio xurgatzeko papera jarri plater batean eta frijitutako letxefritak bertara atera, olio zurrupatu dezan.

9) Kanela hautsa eta azukrea nahasiko ditugu plater batean, eta frijitutako letxefritak bertan arrautza-irinetan pastuko ditugu.

10) Eta listo! Orain letxefritak ahora eraman eta gozatu!

Letxefritak jateko prest



▲ Maritxu Erbiti Etxalekuko Ostatuko gidariarekin



Mutikoa mandatua egitera

Agustin Astitz, gizon burlatia

Agustin Astitz, Añezkarren jaio, eta Antsoain eta Oskoztik pastu ondoren, hilartigure herrian bizitu zena. Lehenik **Dorrotzarrean**, gero **Txurdanean** eta azkenik **Marimigeleneko bordan**.

“Erdalduna” zen, erdaraz aritzen baitzen gehienetan, nahiz euskaraz ere jakin, hori bai, moldakaitz samar.

Jose Landa, amerikano pobrea.

Goitikoetxean bizitu ziren Landatarrak. Erreako Jose Landa, bere familiarekin. Lehenik, Esteribartik Argentinara joan eta atzera 1910. urtean itzuli eta hemen jarri zen bizitzen, **Gotikoetxean**.

Euskalduna, nahiz Argentinan urtez askoz bizitutakoa izan, Esteribar aldeko hizkera ederraz mintzatzen zena.

Eta hizkera hori dela eta, gertakizun bateko bi bertsio diferente:

1º bertsioa.

Joxe Angel osaba zenak, honela kontatzen zuen Landatarraren pasadizo hau:

Bein, Goitikotzeko Jose Landak bere semia Migeli, hala esan ben'tzioken:

-Hi, sei'zak eta karrak fite, pake bat tabako.

Migel, ordun mutiko ttikie, joan duk Txurdania, bertan baiyun tienda, eta Austiñi, saltzaleai, hola esan zioken:

-Attek esan de, fite paket'at tabako emateko.

-Esaioke atei, Fite tabakoik ez duula hemen.

Eta mutikoa, atzia, itxa, atei fite tabakoik e'tzutela ta.

2. bertsioa.

Juaniko adiskideak, berriz, honela kontatzen du:

Attek esan Miel Landai –mutiko kozkorra-ta- :

-Goaie! Karrak kajille bat, fite.

Aido ekartzeko esanai eta, Miel Landa joan Dortozarria ta, eta Agustini:

-Una cajilla fite.

Austin erdaldune, eta mietu zittin denak eta,

-Que redios, aquí no hay ninguna cajilla Fite!

Eta Landa laxterrian itxa:

-Eztaula kajille Fite.

-Nik ez dit erran kajille Fite! Nik erran dit aido kartzeko.

Gertakari beraz bi kontu. Batean dendaria eta mutikoa euskaraz ari dira, bestean, berriz, erdaraz. Batean **Txurdanean** da eta bestean **Dorrotzarrean**. Baina hori ez da kontua. Kontua da, Agustinek entendatu ez edo entendatu nahi ez, euskaraz maingi samarra baitzen, atzera itzularazi zuela. Baina inportanteagoa dena: mutikoak ere ez zekiela **fite** hitzak

zer esan nahi zuen. Aido edo audio bai, bazekien zer zen, baina aitaren “fite” hitzak zer esan nahi zuen ez zekien. Etxekoen hizkera ez zekien, baina karrikakoa bai.

Orain ere berdin gertatzen da, etxeko hizkera ez dela karrikakoa bezain ongi ikasten; nahiz etxean euskaraz egin, karrikan erdaraz mintzatzen bada... gure haurrak zail dutela euskaraz ongi ikastea, alegia!

Agustin eta Migel ardo epel samarrekin zebiltzala esanen nuke. Eta gaurko egunean? Ea ardo frexkoa non eta nola eskuratzen ahal dugun!

Eginahalak egin beharko ditugu.



Txurdan

Hiztegia

Moldakaitz: baldar samar

Aido: Agudo

Fite: Agudo. Nafarroako parte batean eta Iparralde guzian ibiltzen dena. Gurean ez, baina euskaldun zahar onek entendatzen dutena, batez ere Ultzama aldean.



▲ Etxe honetan bizitu ziren Landatarrak, gero Arraitza joanen zirenak



Etxaleku: Filomena Erbiti Lopetegik, ehun urte

Pulunpe zenbaki hau eskutan duzunerako ehun urte beteak izanen ditu Filomena Erbiti Lopetegik.

Filomena Etxalekun jaio zen 1920ko ilbeltzaren 17an **Marijoanean**, Vicente Erbiti Garaikoetxea eta Juana Lopetegi Garaikoetxearen umea. Bigarren umea zuten hauek (1)

Bataiorako ez ote zen iritsiko eta sortzean zaindu zuen medikuak berak, Severo Erbitik, presaz bataiatu zuen. Biharamunean, berriz, Jose Angel Urriza herriko apezak osotu zuen bataioa. Arruizkoak izan zituen atautxi eta amautxi.

Hautzaro eta gaztaro guzia Etxalekun bizitu eta gero moja joan zen. Moja izatez utzi eta Donostian eta Irunen aritu zen lanean zenbait hoteletan.

.....
Filomena, gazte garaiko fotografia batean. ▼



56 urte zituenean itzuli zen herrira, jaiotetxera, **Marijoanera**. Eta hemen bizi izan da nekazalgo lanetan, batez ere behi esneekin, isil-isilik lanean, bere iloba Rosa Mari Artanga Erbiti eta honen senarra Lorentzo Lazkotzekin batean.

Ondarreko urteak, Nati Lazkotz Artanga biloba-ttikiarekin bizi izan da eta bizi da, **Arrosetxean**, Marijoaneko ondoan honek eta bere senarra Patxi Perezek eraikitako etxean.

Bere ezaugarriren bat aipatu dugu, langilea zela, bai, zinez, langile porrokatua, baina horretaz gain, esan gabe ezin utzi bere txukuntasuna, apaltasuna eta bihotz handia.

Zaletasuna

Jaio ondorengo urtean egin zuten Exalekun pilotaleku modernoak. Eta han ibili zen, buru-belarri, pilotan. Saiatu ere gogotik saiatu zen dirudienez, bere fama gaurdaino iritsi baitzaigu, eta pilotan poliki aritzen ziren mutilak ere mendean hartu baitzituen.

Bihoakie Pulunpetik goraintzi, bai Filomenari eta bai bere iloba eta biloba-ttikiari ere. Eta besarkada maitekor bat, ehun urtebetetze honetan, Filomena!

(1) Bigarren umea zela esan dugu, baina aurretik baziren bi ume gehiago, Maria Natividad et Maria Pilar Erbiti Lopetegi. Jose Manuel eta Juana-renak.

Juana alargun gelditu eta koinaturekin, Vicenterekin ezkondu zen. Eta beste sei ume etorriko ziren: Juan, Filomena, Juan Luis, Maria Angeles, Maria Luisa eta Maria Purificación (Orain, bera eta Puri bizi diren bakarrak)



.....
Marijoanea, etxe ederra. ▲



.....
Ezkerretik eskuinera: Nati, biloba ttikia; Maria eta Oihana Perez Lazkotz. Rosa Maria Artanga Erbiti, iloba ttikia eta Jaione eta Patxi Perez Lazkotz. ▲



Ziaurrizko herritarrak oholtza gainean

Joan zen urrian aurkeztu zuen 'Algoritmos' izeneko lana Ziaurrizko Kattalin antzerki taldeak, Larraintzarko Zentro Zibikoan. Hiru pase egin zituzten asteburu batean, eta eskualdeko herritar ugari izan zuen antzezlanak ikusteko aukera

Baina, nondik nora dute antzerkiarekin lotura hori Ziaurrizten? Jesus Villaro taldeko kidea elkarrizketatu genuen Esan Erran irratian antzerki taldearen hastapenen inguruan gehiago jakiteko.

"Lehen antzezlanak 1997an egin genuen, bederatzi bat urte izanen nituen nik. Orduan herriko festen bueltan hasi ginen antzerki bat prestatzeko asmoekin", gogoratzen du Villarok. Cesar Elcano izan zen lehen urte horietan antzerkiaren ideari tiraka aritu zena eta taldearen lehen pausoetan buru-belarri aritu zena. "Festei begira, zerbait berezia edo desberdina eskaintzea zen asmoa, eta horrela bururatu zitzaion haurrei zuzendutako obra bat egitea", azaltzen du antzezleak. Festetarako prestatu zuten lehen obra hori eta,

gero, zortzi edo bederatzi obra egin zituzten jarraian, urtez urte.

• PAUSA BAT TARTEKO, BERRIZ ERE MARTXAN

Baina duela zenbait urte Cesar Elcano antzerki taldearen gidaria zendu zen, eta bere ibilbidean geldialdia egin zuen Kattalin antzerki taldeak orduan. "Geldialdia egin genuen, bere heriotzak antzerkia ere bete-betean ukitu baitzuen", zioen Villarok. Zenbait urte geroago, ordea, berriz ere bueltatu eta antzerkia egiten jarraitzea erabaki zuten taldeko kideek.

Antzezleei dagokienez, Ziaurrizko herritarrak izan dira urte guzti hauetan oholtza gainean aritu direnak. Eskualdean gehiago zabaltzeko aukeraren inguruan

“

**Antzerkia
prestatzen
ari garenean
lan handia
izaten dugu,
baina gustura
egiten dugu**

”

galdetuta, zera zioen Villarok: "Ez dugu inoiz horri buruz hitz egin, baina betidanik oso herrikoa izan da antzerki taldea, maila horretan gelditu gara". 'Algoritmos' antzezlanean Ultzamako herritar batek ere hartu zuen parte lehen aldiz, baina gainontzeko aktore guztiak Ziaurrizkoak ziren. Mikel Gerendiain izan da azken obra honetan gidari, eta obra berak idazteaz gainera, antzezpenen ere aritu zen oholtza gainean.

"Antzerki bat aurkeztea erabakitzen dugunean egia da sekulako lana izaten dugula. Kontuan hartu behar da gu ez garela honetara dedikatzen, ez dugu klaserik jasotzen...", azaltzen zuen Villarok. Obrak aurkeztu aurreko hilabeteetan lan karga handia izaten badute ere, oso gustura egiten dutela adierazi zuen. Izan ere, herritarren arteko harremanak sendotzeko eta bestelako aisialdi aukerak bultzatzeko aukera ematen die antzerkiak. Bada, segi dezatela horren fin, Kattalin!



'Algoritmos' antzezlanak izan da Kattalin taldearen azkena ▲

Jesus Legarrea

“Maila gorenean egotea izanen da, munduko jokalaria hoberenetariko batekin”

Urtarriletik aurrera entrenatzaile lanak urtebetez utzi, eta caddie-a izanen da Jesus Legarrea eltsoarra. Hala eskatu dio munduko 90 hobereenen artean dagoen eta Espainiako laugarrena den Jorge Campillo golf jokalaria. Batzuek uste dute poltsa eramatea besterik ez duela egiten caddie-ak, baina hori baino askoz gehiago da. Campillori babes osoa ematea izanen da bere lana: laguntza teknikoa eta emozionala. Hau da, gauzak okertzen direnean bere jokora itzultzen laguntzea.

• LAN BEREZIA DA, BERAZ, CADDIE-ARENA, EZTA?

Bai, horrela da, beharbada beste kiroletan ez dagoen figura bat da. Pilotako botileroaren antzekoa izan liteke, baina ez da gauza bera. Ni txapelketa hasi baino lehenago bertan nago, zelaiak ikusten ditut, eguraldia eta klima nola dagoen, dena ongi prestatua utzi behar dut txapelketa hasi baino lehen. Baita nutrizio kontuetan ere dena kontrolpean izan behar dut, ura noiz edan behar duen, fruitu lehorrak eta fruta jan ditzan adi egon... Gure lanak anitz dira: poltsa eramatek hasita- hori da kanpotik gehien ikusten dena- jokalariai babes osoa emateraino. Hau da, gauzak ongi ez doazenean animatzeko ere bagaude, jokalariairekin hitz egin behar izaten dugu, hura lasaitu, bere onera itzularazi.

• ASPALDITIK EZAGUTZEN ZENUTEN ELKAR, EZTA?

Bai, profesionalak izan aurretik. Bera Estatu Batuetara joan zen ikastera, eta orduan gure ibilbideak zertxobait aldendu ziren, baina profesional moduan hasi ginenean, berriro ibilbide paraleloa izan genuen: Challenge Tour-ean (2. mailan) elkarrekin ibili ginen, 2011-2012 bitartean. Bere caddie-a izendatzerakoan dugun harremana

kontuan izan du. Ezagutzen nau, eta nirekin konfiantza handia du. Horregatik egin du balantzak nire aldera, esperientzia handiko caddie-ak baitzeuden aukeratzeko.

• URTARRILEAN HASIKO AL ZARETE?

Urtarrilean aurrendenboraldi txiki bat egingen dugu Sevillan, han aritzen baita bere entrenatzailea. Han izanen naiz hiru egunez. Orain tokatzen zaidana lanari neurria ahalik eta lasterren hartzea da.

• ETA, LEHENENGO TORNEOA NOIZ IZANEN DUZU?

Urtarrilaren 12an Abu Dhabira goaz. Desertuko hiru txapelketa daude jarraian: Abu Dhabin, Dubain eta Saudi Arabian. Gero, bi astez, atsedean hartu, eta Mexikon mundiala jokatu dugu. Bertan Jon Rahmen kontra-eta jokatu dugu. Gogorra izan behar da familiarengatik, aste asko emanen baititut etxetik kanpo. Baina ilusio handiz hartu dut, gogotsu.

• ESPERO ZENUEN?

Ez, ez nuen batere espero. Egun batean telefonoz deitu zidan Campillok, eta familia proiektuak zirela medio, Borjak, orduko caddie-ak, lana utzi behar zuela esan zidan. Teknologiairekin dudaren esperientzia lagungarria izan da. Hemen, Ultzaman, 10 urte dira TrackMan-a

erabiltzen dugula: radar bat da, eta pilotaren abiadura, hegan egiteko modua, eta jotzeko modua aztertu eta horren berri ematen dizu; Campillok horretan hobetu behar duela pentsatzen du, eta beste caddie batzuek ez dute radar hori erabili. Aukera hau niretako izugarria izan da, eta ezin nuen ezetz esan. Maila gorenean egotea izanen da, munduko jokalaria hoberenetariko batekin, ikasten jarraituko dut, eta eskertzen diet aukera hau eman izana.



Ultzamako golf eskolan izan ginen Jesus Legarrearekin



Larrialdizko erantzuna

Udan Isabel Allenderen “Largo pétalo de mar” liburuarekin bidaiatu nuen XX. mendeko Chilera. Pablo Nerudak antolatu zuen Espainiar Gerra zibiletik ihesi zihoazenentzako Winnipeg itsasontzia. Udazken honetan, Txilera begira jarraitu dut bertan gertatzenaridirengizarterrebolak aitzakia hartuta. Abenduan ere, Txile mundu osoaren begiradapean egonen zela aurreikusia zegoen, bertan ospatzekoa baitzen Nazio Batuen Klimaren Goi Bilera, COP25 delakoa, alegia. Azkenean, Txileko desegonkortasuna zela medio, Atlantiar ozeanoa gurutzatu behar izan dugu, gehienok Greta Thunberg gaztea ekarri duen katamaranari so, bidaiatzeko garraio jasangarrien hautua egiteko aldarria egiten zuen bitartean.

Bukatu da Goi Bilera eta hasi da erlojuaren kontrako lehia. Beti presaka ibiltzera bultzatzen gaituen gizarte ero honek, badirudi patxadaz hartu nahi duela gure bizileku dugun Lurra errespetatzen hasteko hautua. Baina larrialdi egoera baten aurrean nori bururatzen zaio zain egotea edo mantso ibiltzea? Dagoeneko ez du inork zalantzan jartzen; zientzialarien gehiengoak bat egin du esanez Klima Larrialdi egoeran gaudela eta Erakunde Publiko askok ere adierazpen hori egin du berriki.


Dagoeneko hasiak gara klima aldaketaren ondorioak pairatzen eta paradoxa dirudien arren, klima aldaketan eragin gutxien duten herrialdeak dira ondorio latzenak jasaten ari direnak, eta horietan,

nola ez, emakumeak. Badakit, bai, COP25an adostu dela Klima politiketan Berdintasun politikak txertatzeko paktua zein Europako Itun Berdea. Baina ez ahaztu, Europa Mundu mailan klima aldaketa eragiten duten gas isuriaren gehiengoak eragiten duten lau herrialdeetako bat dela. Ez da harritzekoa, hortaz, zor klimatikoa edota kolonialismo klimatikoa bezalako kontzeptu lotsagarriak aipatzea mundu mailako gizarte eragileek.

Larrialdi egoeran gaude, ezin dugu erlojua geldiarazi, aukera bakarra dago. Batu gaitezen

bada, Goi-bilera honetan herri indigenek, emakumeek eta gazteek erakutsitako indarrari eta ez dezagun itxoin Glasgoven egingo den COP26 goi-bilerara. Erakuts dezagun gizarte heldu bat garela eta oraineko larrialdi egoera honi zapalkuntzarik gabe eta elkartasunean aurre egin diezaiozun. Hilabete honetarako, hortaz, gogoetarako gonbitea luzatzen dizuet, bakoitzak zuen esparrutik, egunerokotasunik zein hautuetatik aldaketak eragin ditzaketen ekintza horien inguruko hausnarketa.

Lurra



▲ *Klima aldaketa*



Aurten ere Olentzerok tokia gorde du bere zakuan, eta liburutegira komiki eta eleberri batzuk ekarri dizkigu. Gure ikazkin maitia oso irakurle amorratua eta eguneratua dela dirudi eta nobedade asko sartu ditu zaku magiko horretan. Goazen ikustera banan-banan. Ongi izan eta ongi irakurri 2020 urte osoan!

Aztihitza. Asisko Urmeneta

Komiki honekin irabazi du ilustratzaile eta euskaltzale nafarrak aurtengo Euskadi Saria. Agosti Xaho, XIX. mendeko Zuberoako kazetaria, idazlea eta politikariaren biografia aurkituko dugu oso modu dotorean argitaratuko liburu honen orrialdeetan, Urmenetaren estilo nahastezinean. Benetako pasadizo batetik sortzen da komiki hau (eta Basaburuan kokatua... baina Zuberoako Basaburuan) obraren sinopsia dion bezala:

“Bizkaitar batzuek Atharratzeko trinketea erosi berri dute, eta bertako gazteei utzi diete, nahi duten gisan kudeatzeko. Baldintza: bertan sortu zen Agosti Xahori (1811n) omen egitea. Bazuen aspaldi Basaburuko gazteak egoitza xerka ari zirela, eta onartu egin dute ezohiko tratua. Baina hasteko... Nor zen Xaho delako hura?

Zinezko egitate honek parada eman digu gure heroi nazionala hobeki ezagutzeko.

Trinketea egokitzen ari direla, Xilbik atzemanduharen “Bidaia Nafarroara” liburua, eta kronika irakurritz segituko du egilea Baionatik Lekunberriraino, euskaldunen lehen oldarraldian (1835ean). Gainera, misterioz beteriko etxea dugu Xahoenea bera, eta bakarrik gelditzen denean, Xilbiri agertzen zaizkio aspaldiko espirituak, zeintzuek osatuko baitute Agosti Xahoren hedadura: hizkuntzalaritzan, politikan, kazetaritzan, kosmogonian... Eta egoitza herrikideei zabaltzen dutenerako, Xilbik eta gainerako gazteek etxekotua daukate euskaldun ezinbesteko hura”.

Antzara eguna

Harkaitz Cano idazleak eta Adur Larrea marrazkilariak bere talentuak batu dituzte komiki honetan beste politikariaren eta euskaltzaleren bizitza kontatzeko: Santi Brouardena, GAL talde armatuak tiroz hil zuen 1984ko azaroaren 20an, bere Bilboko pediatria kontsultan. Fikzioaren bidez, egileek lortu dute Santi Brouarden ezaugarri ezezagunak jakitera ematea, bere ekinbide publikoz aparte (Brouard HASI alderdiko lehendakaria eta HBko mahai nazionalako kidea zen), irakurle amorratua, euskaltzale petoa, eta pediatria hurbila ere izan baitzen lekeitiarra. Bizitza eta heriotza lotzen dira, beraz, garai bateko kontakizuna den eleberri grafiko honetan, Txalapartak kaleratua.

Afrikanerrak, Eneko Barberena

Gerra, apenas nabari den Arrasateko kaleetan. Hori da akaso atzeguardiaren berezitasuna, frontetik urrun bizitzak aurrera egiten duela, kontzientzia-erruduntasunaren eta eguneroko errutinararen arteko nahasketa arinean bada ere. Hona odol zipriztinak urardoturik iristen zaizkigu. Telebistan bai, han hitz egiten digute gerraz, hitz larri eta pisutsuz. Batik bat Europar Batzordeak legez behartu zuenetik komunikabide publiko guztien albistegiek hasiera komuna izan behar zutela: europarra. Etorkizun hurbil batean, Europar Batasuneko tropek Afrikako iparralde hartu dute, migrazio ilegala kontrolatzeko asmoz. Armadan izena emateko nahiko gazterik ez, eta zozketa bidez hornitu beharko dira Magreben gure zibilizazioaren balioak zainduko dituzten euskal konpainiak”.

Hori irakur daiteke Eneko Barberenaren liburuen kontrazal honetan. Distopia bat da, jakina, hau da, utopiaren kontrako egoera, nahi ez dugun gizarte bat, izugarria eta beldurgarria; beldurgarria irudikatzeko gai garelako, hain zuzen ere... baina fikzioan, momentuz, zorionez.





Aitareten etxea (Karmele Jaio)

Bere nobela anbiziotsu eta ausartena idatzi du Karmele Jaio (Amaren eskuak liburu ospetsuaren egilea). Hori dio liburuaren promozioak. Eta arrakastaz itzultzen dela ere bai. Baina hori jakiteko irakurri beharko dugu, eta momentuz egin ez dugunez, hau da argitaletxeak Arestiren poema ezezagunetako batetik hartutako izenburuko eleberri honetaz kontaktzen duena:

“Blokeatuta dago Ismael, bere nobela berriarekin aurrera egin ezinik, argitaletxetik deika eta epea gogoratzen ari zaizkion arren. Gauzak okertu egingo dira, gainera, bere ama gaixotu egin dela-eta, aita zaharraz arduratu behar duenean.

Jasone da senarraren idazlanen lehenengo irakurle eta zuzentzailea; gaztetan idazle izana, gero utzi ziona, baina azken urtean, gauetan ordenagailuaren aurrean, sekretuan berriz sortzen hasi dena. Emazteak idatzitako horretan topatuko ote du Ismaelek azkenaldian aurkitu ezin duen ahotsa? Ala bere baitan arakatu beharko du, ez dakien sekretu hori deskubritzeko?

Maskulinitatea eraikitze eta transmititzeko moduez eta orokorrean generoak emakume eta gizonen bizitzetan duen eragin itzelaz ari da Karmele Jaioaren eleberria. Baita familietan sortzen diren isiltasun esanguratsuez ere”



Neguko argiak

Epaimahaiaren iritziz, Irati Elorrietaren Neguko argiak eleberriak merezimendu osoz irabazi du aurtengo Euskadi Saria. Nomadak dira nagusi kontakizunean, Europako hiri handietan euren bizimodua aurrera eramaten saiatzen den belaunaldikoak. Marta eta Añes pertsonaiez gain, Berlin hiria bilakatzen da protagonista nagusi, maisutasunez antolatutako mosaikoan. Narratzaileak gogoko du gauetan argia piztuta duten sukaldeetara sartzea, leihoetatik begiratzea, neguko argiak lagun, porrota eta erresistentzia osagai duten istorioak kontatzea.

Elorrietaren bigarren lana da Neguko argiak hau, Burbuilak nobelaren ondoren (edo, hobe esanda narrazioaz osatutako nobela horren ondoren) eta kontuan hartzeko idazlea, zalantzarik gabe.



Iturria. Unai Elorriaga

Unai Elorriagak, aldiz, ez du dagoeneko ezer frogatzeko: saririk inportanteenak irabazi ditu, bere liburu batzuekin, SPrako tranbia, esaterako, arrakasta handia eta irakurle asko lortu zituen... Bere azken lanan, Elorrietaren Burbuilak liburuan bezala, ipuinez osatzen du eleberria. Eta ipuinak dira liburuaren gaietako bat, laburpena irakurtzen badugu:

“Pedro Iturriak obsesio bat dauka: ipuin itxurako testuak idazten ditu. Ez dakigu jatorriz zer hizkuntzatan idazten dituen, baina badakigu Txekian txekieraz argitaratzen duela, Hungarian hungarieraz. Soro Barturen gaztetako laguna da Iturria, eta Sorori iruditzen zaio berari buruz ari dela ipuinan, berari begira idazten dituela.

Horregatik ari dira agian Soro eta Erroman Iturriaren bila Europan zehar: hegazkinak hartzen, hoteletan lo egiten, laster laurogei urte izango dituzten arren. Herrialderen batean Iturriaren ipuinen bat argitaratu dela dakiten bakoitzean hara abiatuko dira: itzultzaile bat lortu, ipuina irakurri, Iturria non bizi den ikasi... Baina ez dute hain erraz topatuko laguna”.

Patxi Irurzun
Ultzamako liburuzaina



▲ Patxi Zubizarreta, Irati Elorrieta eta Asisko Urmeneta aurtengo Euskadi Literatura Sariaren irabazleak

2019ko azaroa

Gure alderdian, azaroan izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

ATETZ-ANUE **Olague-Beratsain**

Ugaitz Perotxena Egozkue, azaroaren 10ean sortu zen, Roberto eta Anaren semea. Gurasoak: Olagueko **Albaitarenekoa** eta Beratsaingo **Azpikoetxekoa**).



▲ Roberto eta Ana, haur jaio berriarekin

Ezkontzak

ULTZAMA **Alkotz**

Andre Constantin, Alkozkoa, Margareta Coadarekin, azaroaren 28an ezkondu ziren. Alkotzen biziko dira.



▲ Andrei eta Margareta

“
Zorionak gurasoei ”

“
Zorionak ezkon berriei ”

Heriotzak:

ANUE **Olague**

Florentino Sagues Beramendi apezta eta misiolaria, azaroaren 15ean hil zen, 90 urtetan. (**Guarnicionero etxea** edo **Beramendi etxeko jabea**).



▲ Florentino misiolaria, zahartua

ODIETA **Gelbentzu**

Balbino Ecequiel Goñi Ibero, azaroaren 22an hil zen, 62 urtetan. **Gillentroneko semea**.



▲ Balbino

“
Gure oroimenean izanen zarete ”

NEUMÁTICOS BETELU

646 47 41 66

Juan Alonso Ortiz

Taller Mugikorra

Neumatikoen aldaketa

Zulatutako neumatikoen konponketa

Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
neumatikoak konpontzera
Kostu gehigarririk gabe, kontsultatu prezioak
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu

Erdiko karrika, 8A · Aizarotz (Basaburua) · Info@neumaticosbetelu.es

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK · PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**


**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



Zozketa Mundiala



2019

Sarien Zerrenda
Lista de Premios

Asteburuko Bidaiak 2 Lagunentzat

3

3 Fines de Semana para 2 Personas

Txerri Gizen

10

Axuri Eder

10

Hermosos
Corderos

10

Cerdos Gordos

10

Bazkari edo Afari Bikoitz

18

18 Comidas o Cenas Dobles

eta...beste anitz sari!!
y...un montón de regalos más

www.amezti.eus

